

## Apustuak, lasterketak modu berezian bizitzeko aukera

Datorren igandean III. Bizkaiko Behatokia Rallya ikusi ahal izango dugu eta **Kiroljokoa** motorrak berotzen hasi da, dagoeneko lasterketaren apustuak eskainiz bere apustu-gune guztietan (ikusi kokapenak [www.kiroljokoa.com-en](http://www.kiroljokoa.com-en)).

**Durangalde Racing eskuderiak** antolatutako lasterketa Euskal Herriko Rally Txapelketaren hirugarren froga da eta denboraldi honetan Bizkaian egiten den lehena. Partehartze handia, inguruetako hainbat pilotu barne, eta ibilbidearen zailtasunak, Bizkaiko Behatokia Rallya motorzaleentzako hitzordu garrantzitsua bihurtzen dute.

Rallya irabazteko bi hautagai nagusi daude: Ander Vilariño, bere Subaru Impreza WRCrekin, eta Ramon Apalantza, bere Mitsubishi WRCan. Beraien atzetik Aitor Barrueta, Iñigo Alustiza eta Iñigo Olabegogeaskoetxeak ere aukera handiak dituzte txapeldun izateko. Hori erakusten dute ere **Kiroljokoa** apustuek, Vilariño faboritotzat ematen dute eta.

PILOTUA	KUOTA	PILOTUA	KUOTA
A.Vilariño	1,25	A. Castro	50
R. Apalantza	2,75	R. Garcia	50
A. Barrueta	5,50	J. Erdoizi	50
I. Alustiza	10	Txus Jaio	50
I.Olabegogeaskoetxea	10	X. Alustiza	50
I. Tarsicio	50	S. Robles	50
L. Arrabal	50	Iñaki Alberdi	50

*\*Kuota hauek aldatu egin daitezke.*

### Kiroljokoa, motorreko katalogo zabalena

**Kiroljokoak** motorraren aldeko apustua egiten du, izan ere, 1 Formula, Motorrak eta froga internazionalak eskaintzeaz gain, jarraipen berezia egiten dio Euskal Herriko Rally, Rallysprint

eta Igoerei. **Kiroljokoak** apustuaren bidez zaletuei lasterketak gertuago bizitzeko aukera ematen die. Dударik gabe, pilotu bakoitzaren jarraitzaileen arteko “pikeak” isladatzeko modua, kirol honetaz nork dakien gehien erakutsiz.

### **Kiroljokoa kirolarekin bat**

Gainera, **Kiroljokoak** motorraren alde egiten duen apustua Euskal Herriko zenbait eskuderiekin egindako babesletza akordioetan nabarmentzen da, hauen artean **Durangalde Racing** aurkitzen delarik. Laguntza hau **Kiroljokoak** kirolarekin, eta bereziki gure inguruko taldeekin, duen konpromezuarekin bat dator.

### **Informazio gehiago:**

**Maribel San José**  
**msanjose@kiroljokoa.com**  
**TEL: 688 881 709**